77. IEPPS USURBIL
78. IHOBE
79. IK4 RESEARCH ALLIANCE
80. IKERBASQUE

99. ORKESTRA-INSTITUTO VASCO COMPETITIVIDAD
100. ORUBIDE
101. OSATEK
102. PANDA SECURITY
103. POLO DE INNOVACIÓN GARAIA
104. POOL CME
105. PRECICAST BILBAO
106. PSICOBEGIA
107. SAMMIC
108. SOCIEDAD DE CAPITAL RIESGO DEL PAÍS VASCO
109. SPGVA
110. SPRI
111. SPRILUR
112. STI - SERVICIOS EMPRESARIALES Y TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN
113. TEA-CEGOS
114. TECNALIA
115. TEMPS MULTWORK
116. TTI - TECNOLOGÍAS PARA LA TRANSFORMACIÓN INTERIOR
117. TUBACEX
118. UNIVERSIDAD DE DEUSTO
119. VISESA

Eskerrik asko guztioi!



innobasque
berrikuntzaren
euskal agentzia
de la innovación
www.innobasque.com



Woka Euskadi: berrikuntzatik etorkizunerantz



innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia agencia vasca de la innovación

 Creativity
and Innovation
European Year 2009

Woka Euskadi: berrikuntzatik etorkizunerantz

Zer edo zer segurua baldin bada gure inguruan zera da: ia ezer ez dela segurua. Beste era batera esanda: ziurgabetasuna da esku artean darabilgun ziurtasun ia bakarra etorkizuna nolakoa izango den hausnartzen dugunean. Aldaketa-garaian bizi gara, bai, baina horrez gain, "garaien aldaketa" handiaren lekuko eta protagonista bihurtu gara.

Egin nahi duguna "egiteko" aukera historikoa da oraingo hau.

Zeintzuk dira oraingo egoerara ekarri gaituzten arazoak? Ez dakigu ziur. Interpretazioak ugariak dira, guztiak aintzat hartzeko modukoak eta, hein handi batean, elkarren osagarriak. Erabil daitezkeen ikuspuntu guztiak erabili ditugu ia-ia: ekonomia, ekologia, tentsio sozial eta demografikoak eta alderdi kulturalak, sozialak eta antropologikoak, besteak beste.

Agerian dagoen konplexutasuna bilakaera-prozesu bat da. Etorkizunari aurre egiteko, gogotik lan egin behar dugu ziurgabetasuna gobernatzeko, eszenatoki hipotetikoak planteatzeko eta eguneroko esperientzian kontrastatuko diren ereduak aplikatzeko.

Alabaina, argi utzi behar da bi eszenatoki paralelori aurre egin behar diegula. Alde batetik, bizitza-esparru guztietan pairatzen ari garen krisia, ziurgabetasunaren garai honetako beste pasarte bat besterik ez dena. Eta bestetik, koitunturatik harantzago doan eraldaketa-premia, epe luzearako proposamenetan islatu eta zeharkakoa izateko bokazioa duena.

Gizarte bezala dugun helburua ez da krisia gainditzea, etorkizuna irabaztea baizik. Horregatik, oraingo egoeraz baliatu nahi izan dugu aspaldi abiatutako eraldaketa-prozesuari eusteko. Gogoeta egitean, oraingo krisi-egoerak eragindako estatusunari eta etorkizuneko ikuspuntuaz erakitzeak duen garrantziari begiratzen diegu aldi bertsuan.



Berrikuntza abiaburuan

Krisi-garaian baliabideak urriago bihurtzen dira, eta orduantxe berrikuntzak hobekuntza disruptiboa izateari utzi egiten dio, beharrezana bilakatzen. Berrikuntza behar dugu etorkizuna irabazteko. Produktu berriak, zerbitzu berriak, prozesu berriak behar ditugu, eta guztiaren gainetik, gure eraldaketaren buru izango diren balore berriak behar ditugu, WOKA Euskadi honek agerian utzi duen bezala. Posible al da EZ berritzea? Erantzuna begien bistakoa da.

Krisi bat baino gehiago ezagutu eta gainditu egin dutenek ongi dakite oraingoak bezain gogorrek diren uneak baliatu ditzakegula eraldaketa bizkortzeko. Adostasuna sortzen da, eta modeloa aldatzeko beharrezana guztiek ikusten dute. WOKA Euskadi ikuspegi hori areago sendotzeko aukera aparta izan da, eta alderdi askotatik gertatu da hori, gaienra. Izan ere, berrikuntza ez bere horretan eta modu isolatu batez lotzen, adibidez, teknologia, negozio, zientzia, marketin, hirigintza, energia, hezkuntza, erakunde, gizarte-eragile, internet, enpresa, gobernu edo komunikabideekin. Arlo bakoitzeko pertsona adituek ongi dakite zer gertatzen den beren jardueraren esparruaren barruan, baina ez dago denetarik ulertzen

duenik, eta irtenbide berritzaileak hibridaziotik sortzen dira. Ingurune berritzailea sortu ahal izateko, berrikuntzan erreferente bihurtzeko, konpartitu egin behar dugu. Ezagutza, erronkak, erantzukizunak eta ikuspegi desberdinak partekatzen ikasi behar dugu. Gure etorkizuna guztion egitekoa da.



Sareko kontsentsuak

Maiatzaren 18an, eztabaida irekiak bezain aberasgarriak egin genituen 116 erakundetan, eta horietan 5.000 pertsona inguruk parte hartu zuten. Ondorioz, gizartearen lagin adierazgarria dela esan dezakegu. Baina parte hartze honen garrantzi kualitatiboa are handiagoa izan da, bereziki gogoan hartzen badugu ez zela adituen arteko eztabaida izan eta antolaketa erabat borondatezkoa izan zela, horretarako bitartekook eta baliabideak prestatu zituzten eragileei sosik ere ordaindu gabe.

WOKAren gonbidapenari emandako erantzuna oso baikorra izan da, eta gure ustez, bat dator Innobasque-ren inguruko gizarte-sarearen konpromiso-mailarekin. Oinarri sendoa, etorkizunean ere ildo bereko baliozko proposamenak egiten jarraitu beharko duen elkargunea.

Topaketa hauetako ikusmolde ez-espezialistak euskal gizarte deritzogun izaki bizidun honi neurria hartzen lagundu digu. Gure ustez, WOKA Euskadin entzun ziren ahotsek egungo egoeraz eta etorkizuneko horizonteei buruz dagoen sentiera nagusia eta komuneko iritzia islatzen dute.

Elkarriketa erraldoi hau dinamizatzen erabili dugun metodologia, World Café delakoa, zeharo lagungarria suertatzen da mahaietan kontsentsu gehien lortu duten alderdiak nabarmentzeko. Solastatzeko modu honi esker, eztabaida zabalago batetik "berreskuratu" ahal izan ditugu komuneko puntu nagusiak.



Zeintzuk dira WOKA Euskadi-ren emaitzak?

Guztira 1.318 proposamen batu ditugu, eta horien artekoak dira maiatzaren 18ko topaketan bildutakoak zein kanal sozialen bidez (Gizarte-Sareak 2.0) edo bazkideen beste ekarpen-bide batzuen bitartez jaso ditugunak.

Informazio kopuru izugarri hau sistematizatzean, **ezkutuko logika bat, komuneko sena** aurkitu diegu krisiari aurre egin eta eredu-aldaketa bideratzeko proposatu diren ekintzabide desberdinei.

Hauexek dira jarduketako-ildo honen gako nagusiak:

"Zuhurtzia" abiapuntuan. Gizabanako eta taldekako erantzukizun eta konpromisotik begiratuta, seriotasuna eskatu da oinarriak finkatzerakoan. ("Gure etorkizuna da jokoan dagoena, eta guztioi dagokigu zeregin kontziente eta konprometitua aurrera ateratzea").


Anbizioa helburuan: Gizartea eraldatu eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatuko duen eredu berri baterantz eramatea.

Konpromisoa eredu aldatzeko prozesuan: Pertsonak eta erakundeek etorkizunerako estrategia hau "blindatuta" geratuko dela bermatu behar dute, egoera kointuturalen arabera zalantzan jarri gabe. Behar-beharrezkoa da konpromisoa hau ezagutaraztea gizarte-akordio zabal baten bidez, erakunde publikoak, eragile pribatuak eta gizarte osoa inplikatu. Itun publiko-pribatu-sozial handi bat.

Baloreak aldatzeko premia: aldaketa kulturala edo axiologikoa. Aurrera atera nahi den edozein irtenbide baloreen eremuan kokatuta dago. Hauxe da prozesu honetatik ateratako ondorio nagusietakoa. WOKA Euskadin parte hartu zutenek oso argi ikusten dute, gizartearen gainontzeko eremuek (enpresariala, laborala, politikoa, etab.) oraingo egoeratik ateratzeko irtenbiderantz joko dutela, baldin eta egungoa ez bezalako kode axiologiko edo baloratibo baten arabera jokatzeko badute. Ondorioz, lehenik eta behin, derrigorrezkotzat jotzen da sistema osora hedatuko den kultur aldaketa bat. Geure esku dago baloreak aldatzea.

Jasangarritasuna, zeharkako balore gisa. Hauxe da proposamen guztiak multzotzat jota egituratu eta zentzua ematen dien planteamendu nagusia. Gizartea eraldatzeko edozein planteamenduk bere gain hartu behar du garapen-ereduaren aldaketa estrukturala jasangarritasunaren mesedetan. Kasu honetan, jasangarritasuna, ohiko ingurumen-dimentsioa gainditu eta alderdi soziala, enpresariala, laborala, politiko-instituzionala eta, uzartzen dituen kontzeptutzat ulertu behar da. Azken batean, hazkunde ekonomikoaren eta honi lotutako prozesu eta ekintzabideen aldaketa eskatzen da, egun indarrean dauden joko-arauak berrantolatuz jasangarritasunez eta gizarte-erantzukizunez.

Giltzarrizko eragileak: aldaketarako palankak



Zeri buruzkoak izan dira ekarpenak?

Bildutako 1.318 ekarpen edukiak ondoko esparru hauetan antolatu dira:

esparruak	ekarpenak %
Baloreen aldaketa (gizarte jasangarria)	31
Hezkuntza-ingurunea	19
Administrazioak eta Gobernuak	18
Enpresen Lehiakortasuna	15
Gizarte-ehuna eta Komunikazioa	9
Zientzia, Teknologia	8

WOKA Euskadiko ekarpenen laburpena

Guztira 1.318 ekarpen zenbatu ditugu, esparru eta garapen-maila desberdinetakoak. Ondorengo lerrootan duzue bildutako neurri nagusien laburpena, aplikazio-eremuen arabera sailkatuta.

World Cafe-aren metodologiak partaideen arteko akordio zabaletan oinarritutako neurriak nabarmentzen ditu. Ondorioz, kontsentsurik handieneko proposamenak dira garrantzirik handienekotzat jo direnak.

1

Helburua: "Gizarte jasangarritantz"

- 1.1 Epe luzea gogoan hartzea ekonomia eta lurralde alorreko planifikazio guztietan.
- 1.2 Eko-berrikuntzaren aldeko apustu tinkoa egitea.
- 1.3 Energia-aurrezkia eta eraginkortasuna sustatzea: egungo sistema fiskala berrikusi eta kanpoko kostuak gaineratzea (gizarte eta ingurumen alorrekoak) produktu eta zerbitzuen prezioei.
- 1.4 Eraikuntza jasangarria sustatzea.
- 1.5 Elektrizitatea ekoitzi, garraiatu eta banatzeko sarea hobetu eta modernizatzea, mikro-sorkuntzara egokitzeko.
- 1.6 Garraioaren planifikazio zorrotza. Automobiletan eta erregai fosiletan oinarritutako egungo mugikortasun-ereduaren birplanteamendu globala, mugikortasun-eskaria kudeatzeko eredu baten mesedetan.
- 1.7 Garraioa enpresa-jardueran finkatu eta elkarreragiteko azpiegituren garapena.
- 1.8 Gizarte-esparru guztietan kontsumo arduratsua, kontsumo jasangarria, sustatzea.
- 1.9 Materialismoa gainditzea, aurrezkia eta gastuen arrazionalizazioa.
- 1.10 Baliabideen mugapenez, hazkunde-akrez eta ohitura berriez kontzientzia hartzea, daukaguna zaindu behar dugu.




2

Abiapuntua: balore-aldaketa

Euskadin eraldaketa eta berrikuntza sustatuko duten gida-balore orokorrak, globalak eta instrumentalak sustatzea, ondoko hauek tarteko direla, besteak beste:

- Elkartasuna (konpromisoa, lankidetzeta, elkarlana, austeritatea, gizarte-mobilizazioa, aktibismoa, partaidetza);
- Etika (erantzukizuna, zintotasuna, onestasuna, koherentzia eta gardentasuna);
- Pertsonen eta kultur aniztasunaren balorea (aniztasuna, pluraltasuna, adimen emozionala, autonomia, autosufizientzia, errespetua, elkarbizitza, tolerantzia, globaltasuna, hobetzeko grina);
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko apustu erradikala.
- Ahalegin eta lanaren kultura (lanaren etika, ondo egindako lanaren balorea, bokazioa, profesionaltasuna);
- Berrikuntza eta sormena.
- Ekintzailtza (arriskuak bereganatzea, proaktibitatea, arrakasta eta porrotari buruzko kontzeptu berriak, ikaskuntza etengabea, lehiakortasun zintzoa, lidergoa);
- Komunitatearen balorea (kidetasun sena) individualismoaren aurrean; partekatutako ikusmolde baten aldeko apustua.
- Erantzukizuna (norberak arduraz jokatzeta, elkar-erantzukizuna, agintariei erantzukizuna eskatzeta);
- Balore positiboak: konfiantza berreskuratzea (optimismoa, lasaitasuna, pazientzia, bizitza-kalitatea, familia eta lana uztartzea, esperientzia baloratzea);
- Ekonomia Sistemaren helburua birdefinitzea, "aberastasuna sortzea" ez dadila izan "norbera aberastea".
- Ezagutza eta espiritu kritikoa.





Hezkuntza-esparrutik eta Unibertsitatetik

Izaera orokorrekoak

- 3.1 Irakaskuntza-sistema ikuspegi holistiko batek aztertzea: hezkuntzaren integrazioa gizartearen, enpresan, familian, administrazioan eta pertsonen bizitza-aldian.
- 3.2 Eskakizun eta premiei erantzuten duen hezkuntza-sistema "arduratsua", garatzeko bidean diren errealitateen aurrean prestakuntza-alor berriak sortzen dituen.
- 3.3 Hezkuntza-sistema autonomo, egonkor, kalitate handiko, exigente, hierkizatu gabeko eta pertsonalizatu baten aldeko paktua.
- 3.4 Irakasleei begira:
 - Gizarte-errekonomizimendua areagotzea,
 - Prestakuntza jarraitua eta behar bestekoa erraztea,
 - Gaitasuna eta egonkortasuna bermatzea,
 - Emaizten araberako ebaluazioa
- 3.5 Eduki praktikoagoak, prestakuntza espezializatuago batez eta lan-munduekiko hartu-eman oparagoak errazuz.
- 3.6 Diziplina-aniztasuna eta diziplina-artekotasuna sustatzea.
- 3.7 IKTen txertaketa eraginkor eta pedagogikoa;
- 3.8 Bestelakoak:
 - Prestakuntza osagarria areagotzea;
 - Aniztasuna txertatzea;
 - Kalitatea eta kohesioari buruzko adierazleak zehaztea;
 - Zentroetako baliabide didaktikoen ekipamendua hobetzea.

Lanbide-Heziketa azpisistematik

- 3.9 Lanbide-Heziketarako zentroak berrikuntzaren aldeko eragile aktibo bihurtzea dagozkien enpresa eta gizarte-inguruneetan..
- 3.10 Enpresa-sarearekiko lankidetzeta LHko zentroetan garatzeko moduko gaitasunak identifikatzeko.
- 3.11 LHtik teknologia transferitzea enpresa txiki eta ertainei.

Enplegurako prestakuntza azpisistematik

- 3.12 Prestakuntza etengabearen aldeko apustua (teknologian eta ezagutzan oinarritutako ikaskuntza etengabea eta pertsonen bizitza osoan orientazioa emateko sistema integratua.)
- 3.13 Lan-merkatura zuzendutako prestakuntza jarraitua, lanbide-ibilbide osorako.

Unibertsitatetik

- 3.14 Unibertsitatea eta lan-giroa lotzea, irakasleei berrikuntzan aitzindaria den gizarte baterako premiazko gaitasunei buruzko prestakuntza eskainiz eta beren ikertzaile-karrera bultzatuz.
- 3.15 Nazioarteko mugikortasuna sustatzea.
- 3.16 Unibertsitate-profesionalen balorea bultzatzea sektore pribatuan.
- 3.17 Berrikuntza-prestakuntzan laguntzea.

Administrazio eta Gobernuetatik

Izaera orokorrekoak

- 4.1 Ekintza publikoaren sinesgarritasuna areagotzean oinarritutako lidergo instituzional berri bat eraikitzea, barruko eraginkortasuna eta hiri-partaidetza sustatzeko.
- 4.2 Erakundeek gainerako gizarte-eragileei premiazko konfiantza sortu eta igortzeko duten trakzio-funtzioa gehitzea, egungo krisi-egoeratik ateratzeko beharrezko pausotzat.

Barruko antolaketa-kultura berri baten garapenetik

- 4.3 Gastu publikoa kudeatu eta murrizteko eraginkortasuna (eredugarriak izatea krisi-garaietan).
- 4.4 Klase politikoaren profesionalizazioa.
- 4.5 Administrazioan guztiz beharrezkoak ez diren lanpostuak murriztea.
- 4.6 Epe luzea sustatzea neurri politikoetan (hauteskundearen araberako egutegia gaindituz).

Kanpoko antolaketa-aldaketen eskaria

- 4.7 Hiri-partaidetza sustatzea gobernantza berri baten mesedetan.
- 4.8 Gizartearen gaitasun proaktiboa bultzatzea.

Finantza-esparruaren erregulaziotik

- 4.9 Egun dauden erregulazio-mekanismoak indartu eta hobetzea, oraingo krisia eragin duten hutsegiteak ez errepikatuz.
- 4.10 Gardentasuna, ikuskapena, etika, eta espekulazioaren eta neurriz kanpoko irabazien kontrola bezalako irizpideak balioztatzea (era eraginkorrean).

Enpresen lehiakortasuna sustatzeko finantza-laguntzen instrumentuetatik

- 4.11 Enpresa guztiei zuzendutako neurri zuzentzaileak, hala nola:
 - Laguntza azkarrak eta zuzenak (burokrazia murriztea),
 - Diru-laguntzetarako irispidea erraztea,
 - Administrazioaren ordainketa-berankortasuna murriztea,
 - Sozietateen zerga murriztea,
 - Kredituetarako irispidea errazteko mekanismoak sortzea,
 - Enpresa-jarduera penalizatuko ez duen tratamendu fiskal mesedegarria,
 - Kontratatzeko laguntza gehiago,
 - Euskal Kutxen fusioa erraztea.
- 4.12 Enpresa txiki eta ertainetarako: finantzaketarako irispidea erraztea, egungo neurriak osatu eta indartuko dituzten kreditu espezifikoak bitartez, kostuak eta tarifak malgutuko dituzten neurrien bidez eta diru-laguntzako lerro espezifikoak eratuz.



Enpresa-lehiakortasunetik proposatutako neurriak



- 4.13** Egoera kritikoan dauden enpresetarako (EEE):
- Krisian dauden enpresa-proiektuen behin-betiko itxiera ekiditea.
 - Gizarte Segurantzarako ordainketak geroratzeko malgutasuna areagotzea.
 - Administrazioak bere gain hartzea langileei dagozkien kostuak, langabezia-subsidioaren ordezkotza ekintzabidetzat.

Gizarte-politiketarik

- 4.14** Gizarte-bazterkerian edo horretarako arriskuan dauden kolektiboak (langabetuak, minusbaliatuak, etorkinak, enplegu-erregulazioan daudenak, etab.) lana era aktibo batez bilatzea erraztuko dieten neurriak ezartzea, hala nola, prestakuntza edota bakoitzaren beharizan-mailaren ebaluazioa.
- 4.15** Jatorrizko herrialdeetan garapen ekonomiko eta soziala sustatuko duten inmigrazio-politikak ezartzea: lankidetzaren alde egitea mundu globalizatu honetan.
- 4.16** Alokairua eta etxebizitza sozialak bultzatzea, jabetzan oinarritutako egungo ereduaren aukera gisa.
- 4.17** Egungoa bezalako krisi-egoerarako gizarte-estaldura espezifiko egokia segurtatzea (adibidez, hondamendietarako aseguruak), bereziki kolektibo sentikorrenei begira, eskubideak eta betebeharrak uztartuz, langabezia-egituren kudeaketa eraginkor baten bidez.
- 4.18** Jarduerarik ezari pizgarriak kentzea.

Lan-politiketarik

- 4.19** Enplegua banatzea xede duten neurriak abian jartzea (enplegua ondasun urritzat hartuta), lanari buruzko kontzepzioa aldatuz (lanaren sozializazioa).
- 4.20** Eraginkortasuna eta produktibitatea (kalitatea) sustatzea, alderdi presentzialak (kantitatea) edota ordu-kopurua alboratuz.
- 4.21** Lanaldiari dagokion ordu-kopurua murriztea, lan-esparrua, familia-esparrua eta esparru pertsonala uztartu ahal izateko.
- 4.22** Lanarekin lotuta ez dauden eguneroko bizitzako beste alderdi batzuk balioztatzea, gizarte garatu baten bizitza-kalitatearen adierazle gisa.
- 4.23** Kooperatiba ereduak sustatzea.
- 4.24** Malgu-segurtasunaren aldeko apustua.
- 4.25** Langileak kontratatuta eta kanporatzeko egungo egitura malgutuz laguntzea.

Erakundeen kulturatik

- 5.1** Antolaketa-eredu berrien ezarpena bultzatzea, pertsonetan oinarrituta, norberaren sormen eta harreman alorreko gaitasunak baliaraziz.
- 5.2** Partaidetza oinarri duen antolaketa-kulturaren garapena: enpresa parte hartzaileagoak, integratzaileagoak eta irekiagoak eraikitzea.
- 5.3** Enpresen Gizarte Erantzukizuneko ildoari balore etikoa gaineratzea.
- 5.4** Erakundeen barruan sormena bultzatzea, baita ideiak trukatu eta hausnarketa egiteko lankidetzak-eremuak ere.

Negozioaren orientaziotik

- 5.5** Negozio-ereduan aldaketak bultzatzea, bezeroenganako orientazioan eta dibertsifikazioan oinarrituta.
- 5.6** Produktzio-sektoreen dibertsifikazioa errazteko benchmarking-a garatzea.
- 5.7** Tokian tokiko produktzioa sustatzea.
- 5.8** Enpresa-ekimenei laguntzea ondokoak bezalako aukera-eremuetan:
- Gizarte zerbitzuak ematea
 - Turismo zerbitzuak
 - Gastronomia zerbitzuak
 - Internet ingurunea

Berrikuntza eta Nazioartekotzea

- 5.9** Enpresen arteko lankidetzak bultzatzea berrikuntza eta nazioartekotzeari begira.
- Elkarlankidetzak bultzatzea.
 - Udalerri bereko enpresen arteko lehiakortasuna murriztea.
 - Baliabideak optimizatzeko prestakuntza.
 - Sareko lana.
 - Jokabide egokiei buruzko foroak eta elkarguneak sortzea.
- 5.10** Euskal enpresak kanpoan sustatzea, bereziki hazten ari diren merkatuetan.

Ekintzailearen esparrutik

- 5.11** Euskadin ekintzailearen kultura bultzatu eta laguntzeko programa koordinatua bultzatzea, ekintzaileak gizartearen garatu beharreko baloretzat hartuta.
- 5.12** Enpresa berriak sortzeko administrazio-prozedura bizkortu eta sinplifikatzea (figura juridiko berriak, irisgarriagoak, malguagoak eta dinamikoagoak). Berrikuntzatik abiatuta eta bizirik jarraitzeko sena zorrotza, ideiak gauzatzeko eta aukerak "egin" eta baliarazteko sistemak sustatzea.
- 5.13** Lanari buruzko kontzepzioa aldatzea. Zaletasun eta trebetasunekin identifikatzea.
- 5.14** Intra-ekintzailearen enpresen barruko baloretzat bultzatzea.
- 5.15** Mikroenpresen sorrera sustatzea, zerga-araubide espezifiko baten bidez.
- 5.16** Porrota ez satanizatzea, hutsegitearen beldurra gaitzea.



Gizarte-ingurunetik eta Komunikazio-esparrutik proposatutako neurriak


Gizarte-ingurunetik

- 6.1** Gizarte-esparruan balioa ematea berrikuntzaren kulturari, berrikuntzaren aldeko egitura proaktiboak eta hedapen-ekintzak erabiliz, masa kritikoa sortzeko asmoz.
- 6.2** Gizarte-lankidetzeta eta partaidetzeta bultzatzea, berrikuntzan oinarritutako trukaketa-eredu berrien bitartez eta ideien trukaketa sustatu eta errazten duten WOKA bezalako hausnarketa kolektiborako tresnak erabiliz.
- 6.3** Krisiaren aurrean ekintzabide koheSIONatu baten aldeko neurriak hartuko dituen gizarte-plataforma sortzea. "Taldekontzientzia" bultzatzea, arazoak adostasunez eta elkarlanean konpontzea erraztuko duten elkarriketa sozial-enpresarial eta politikorako plataformak sortuz. Gizarte-eragile guztiek parte hartu behar dute neurri, plan, erregulazio eta ekintzei buruzko kontsentsu horretan, ez dugu baztertu behar ezin gizarte-sektoreen ekarpena.
- 6.4** Gizarte-berrikuntzan inbertitzea, gizarteak zer behar duen eta zer eskatzen duen ikertzea, enpresa nahiz gobernu mailan.
- 6.5** Sormena eta anbiziozko berrikuntza sustatzea, krisia aukera bihurtuko duten "ideia-bankuak" sortuz.

- 6.6** Gizarte-esparrua erakundeetan txertatzea, errentagarritasun ekonomikoarekin batera gizarte-errentagarritasuna ere bermatzen duten enpresa-eredu berriak ezarri edo bultzatuz, Euskadin eraldaketa-eredu berriak finkatzeko izan ditzaketen traxio-ahalmena guthiatsi gabe. Hau guzti hau administrazio publikoen aparteko planei aplikatu dakieke (azpiegiturak izan ohi dituzte helburu).
- 6.7** Berrikuntzatik lidergo humanista eta integratzailea bultzatzea.
- 6.8** Biztanleriaren zahartze aktiboak dakarren erronkari arreta egitea, adinekoei eta hauen gaitasunei balioa emanez, eta produktibitatearen eremua lanarekin zerikusirik ez duten inguruneetara ere hedatuz.
- 6.9** Bizitza-kalitatearen aurrerakuntzari jarraipena egitea erraztuko diguten adierazle globalen sistema lantzea, elementu kuantitatiboak nahiz kualitatiboak sartuz.

Komunikazio-esparrutik

- 6.10** Komunikabideak gizarte-baloreen aldeko konpromisoa hartzea bultzatzea, etorkizuneko oinarri berrien sozializazioa bermatu eta bultzatzea.
- 6.11** Enpresa, erakunde eta gizarte-eragileen komunikazio-egiturak lankidetzeta-ingurune berri batean txertatzea, komunikabideekin batera, berrikuntzaren erronkak sozializatzeko proiektuetan elkarlana errazteko asmoz.
- 6.12** Komunikazio-kanal berriak abiaraztea, ezagutzaren eraikuntza sustatu eta partekatzea.
- 6.13** Berrikuntza eta zientziaren balorea ezagutarazi eta jokabide egokiak zabaltzeko plataformak sortzea.



Zientzia eta Teknologiatik proposatutako neurriak

- 7.1** Krisitik ateratzeko irtenbidea, ondokoak bezalako sektore estrategikoetako berrikuntza teknologikoan zehar bilatzea, betiere jasangarritasun-irizpideak eta gizarte-balorea sortzeko ahalmena gogoan hartuta:
- Energia berriztagarriak bultzatzea
 - Egungo energia-eredua aldatzea (energia-eraginkortasuna)
 - Informazio eta Komunikazioa Teknologiak
 - Industria-sektore tradizionalak indartzea/eguneratzea
 - Osasun-zerbitzuak eta soziosanitarioak (adinekoak, minusbaliatuak...)
 - Eraikuntza jasangarria
 - Garraioa arrazionalizatzea
 - Nanoteknologiak
 - Bioteknologia
 - Bio-medikuntza
 - Azpiegituren garapena
- 7.2** Zientzia eta Teknologiararen Euskal Sistematik (ZTES) enpresa-ehunera doazen emaitzen transferentzia-eraginkortasuna hobetzea, bikoiztasunak baztertuz eta topaketarako inguruneak sortuz.
- 7.3** Giza kapital erabilgarriaren esperientzia metatuz baliatzea (mentoring, aditu taldeak...).
- 7.4** ZTESren nazioartekotzea eta globalizazioa bultzatzea.
- 7.5** Talentua garatu, erakarri, zirkulatu eta atxikitzekeko estrategian sakontzea.
- 7.6** Euskal enpresek zientzia handiko europar proiektu nagusietan dituzten aukerak sustatzea (Neutroien Espalazio-Iturria,...)
- 7.7** I+G+b finantzatzeko aukerak bilatzea enpresa guztietarako, tamaina txikienekoak barne.
- 7.8** Krisitik lehenago atera daitezkeen etorkizuneko traxio-sektore berriak (ozeano urdinak) identifikatzea eta horiek lehenbailehen hedatzeko neurriak hartzea.